



# Ohiko EPEn eta aldi baterako egonkortzeko EPEn, plaza lortu ondoren zer egin behar dut?

## Hautatutako izangaiek egin beharrekoa

### 1. Dokumentazioa:

Agiriak aurkeztea (deialdiko 12.1 puntua).

**Dokumentazioa aurkezteko epea 20 egun naturalekoa da, behin betiko zerrendak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.**

- a. Indarrean dagoen Nortasun Agiri Nazionala, salbu eta esanbidezko adostasuna adierazten badute Hezkuntza Sailak nortasun-datuak kontsultatzeko eta egiaztatzeko sistema elektronikoen bidez.
- b. Zinpeko Aitorpena edo hitz ematea (aurreko prozesuan dokumentazioa aurkezteko gaitutako atalean eskuragarri zegoen).
- c. Kidegoan sartzeko eskatutako titulua edo titulu hori lortzeko ikasketa guztiak gainditu direla, eta titulua eskuratzeko eskubideak ordaindu direla egiaztatzen duen ziurtagiria. Ez dute aurkeztu beharko hautaketa-prozesuan zehar aurkeztu dutenek edo kontsultatzek berariazko baimena ematen dutenek.
- d. Eskatutako hizkuntza-eskakizuna betetzen dela egiaztatzen duten titulazioak edo ziurtagiriak, salbu 2.6.1.1 oinarriko a), b), c), d), e), f), g), h) eta i) letretan aipatutakoak, irakaskuntzako 2. hizkuntza-eskakizunerako eta oinarri bereko a), b), c), d), e), f), g) eta h) letretan, 1. hizkuntza-eskakizunerako, betiere Euskara Tituluen eta Ziurtagiriaren Erregistro Bateratuan edo Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan jasota badaude.
- e. Deialdiaren 2.7 oinarrian aurreikusitako titulu edo egiaztagiria, Espainiako nazionalitatea ez duten eta hizkuntza ofizialtzat gaztelania ez duten pertsonen kasuan.
- f. Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko izangaien kasuan, 2.2.2 oinarrian aipatzen den prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa dutela egiaztatzen duen ziurtagiria edo titulua, edo, hala badagokio, baldintza horretatik salbuetsita daudela egiaztatzen duen titulua.
- g. Sexu-ukigabetasunaren askatasunaren aurkako delituren batengatik epai irmoz kondenatua ez izanaren ziurtagiria, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralak emana. Hala ere, ez dute aurkeztu beharko Hezkuntza Sailak datu hori kontsultatzeko berariazko baimena eman dutenek, elkarreragingarritasun-sistema elektronikoen bidez, 3.1.2 oinarrian adierazitakoaren arabera.

### 2. Osasun-Azterketa:

- Aukeratutako kidegoaren eta espezialitatearen eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala zehazteko, eta, horrela, hautatutako pertsonak irakaskuntza-eginkizunak efizientziaz eta autonomiaz bete ahal izango dituztela egiaztatzeko, Hezkuntza Saileko Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuan osasun-azterketa egiteko hitzordua emango zaie.
- Gaikuntza hori zehazteko, erreferentziatzat hartuko da Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren balorazio profesionalerako gida, zeinak zeregin eta eskakizun psikofisikoak definitzen baititu. Azterketa horren emaitza «gai» edo «ez-gai» izango da eta Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzara eramango da. Gidaren erreferentziako azken dokumentua hau da: "**Balorazio profesionalerako gida**".
- Osasun-azterketara justifikaziorik gabe joaten ez badira, ez-gaitzat hartuko dira. Arrazoi justifikatua badago, beste egun batean joan beharko da osasun-azterketara, eta ez dago probatik behin betiko salbuesteko justifikaziorik.

### 3. PRAKTIKALDIRAKO ARAUAK:

- Praktikaldiaren ikasturtean, gutxienez, 3 hilabete gehi egun bat lan egin behar da eta derrigorrez plaza atera den espezialitatean (salbuespena PTKoek aholkulari plazetan ere egin dezakete)
- Praktikaldian hastea atzeratu behar duten pertsonak, (aldi baterako ezintasun-egoeran daudelako, gurasotasunagatik, adopzioagatik...) praktika-fasea normaltasunez garatzea eragozten diena, eta Kalifikazio Batzordeak baloratuko duelako, luzapen bakarria eskatu ahal izango dute hurrengo ikasturtera arte, urtebeteko epean, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari zuzendutako idazki baten bidez, bost egun balioduneko epean.
- Praktiketako ordu kopurua betetzeko, gutxienez bi hereneko jardunean egin behar da.
- Ikastetxeari dagokion ikuskariaren eta ikastetxean izendatutako tutore baten ardurapean egiten da praktikaldiaren ebaluazioa. Ez da notarik jartzen, gai edo ez-gai baizik. Gainditu ezean, hurrengo ikasturtean egiteko aukera egongo da soilik. Berrirori suspenditu edo egiten ez bada, posizio-lehiaketak emandako eskubide guztiak galtzen dira.

### LEKUALDATZE-LEHIAKETAN LEHENENGO PARTE HARTZEA (LAL)

- Behin betiko lanpostua lortu arte, urtero parte hartzea nahitaezkoa da.
- EPEn plaza esleitutako espezialitatean emango da lehenengo behin betiko destinoa (salbuespenak LALeko deialdian daude).
- Praktikaldian zaudela LALen oposizio-lehiaketaren azken notaren arabera lehiatzen da.
- Eskaera betetzerakoan hiru lurraldeetako ikastetxeak jar daitezke. Ofizioz esleitzen bada, aplikazio informatikoan aukeratzen den lurraldean emango da lanpostua (ez bada aukeratzen, lanpostua lanean diharduzun lurraldean egokitu ahal izango da).
- Behin betiko lanpostua lortzen ez bada, behin-behineko funtzionarioa bihurtzen da. Horrela, behin betiko destinoa lortu arte urtero parte hartu beharko da lekualdatze-lehiaketan derrigorrez. Egoera honetan, merezimendu guztiak aurkez daitezke puntuak lortu ahal izateko. Esleitutako plazari ezin zaio uko egin.
- Urtero bezala, Steilasetik batzar informatibo irekiak antolatuko ditugu; LAL prozesuaren inguruko azalpenak emateko eta zalantzak argitzeko.

## LAN BALDINTZETAN MURRIZKETARIK EZ!



[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)



#### Araba

Manuel Iradier 40  
01005 **Gasteiz**  
☎ 945 14 11 04  
[araba@steilas.eus](mailto:araba@steilas.eus)

#### Bizkaia

Jose Maria Eskuza 1, 1 esk.  
48013 Bilbo  
☎ 944 10 02 98  
[bizkaia@steilas.eus](mailto:bizkaia@steilas.eus)

#### Gipuzkoa

Gaztela kalea, 16-18, Behea  
20015 Donostia  
☎ 943 46 60 00  
[gipuzkoa@steilas.eus](mailto:gipuzkoa@steilas.eus)